


# Iturri zaharretik edaten: Joxan Artze gogoan



## Isturitzetik Tolosan barru

**Egilea:** Joxan Artze

**Argitaratzailea:** Joxan Artze

**Argitaratze urtea:** 1969

**Generoa:** Poesia



**TERE IRASTORZA** IDAZLEA

Asko estimatu ohi dira liburu bakarra idatzi eta goia jo omen duten idazleak. Rimbaud aipatzen da, ia beti. XX. mendean indarberritu zen euskal literaturak, berriz, arnas luzeko idazle-segida ederra opatu digu –Gabriel Aresti, Xabier Lete, Juan Mari Lekuona, Amaia Lasa, Luis Mari Mujika, Jose Angel Irigarai, Bitoriano Gandiaga...–. Ez da nolana hiko ondarea geurea bezalako literatura batean.

**Hil berri** dela eta, Joxan Artzeren edozein poema-liburutara hurbiltzeko gonbidapena egin nahi dizuet.

Jose Antonio Arzek – batzuetan, *Harzabal* izenez sinatu zuenak, eta hurrena *Harzubi*– bizi bizi eman du poesia idazten. Bizi bizi eman du eskaini dio poesiari ere.

Lehen liburu argitaratu zuenean, *Isturitzetik Tolosan barru* (1969), 30 urte zituen, eta esan genezake, beraz, ez zela gaztetxo ordurako. Ziurrenik bere bizitzarako eta gure gozamenerako erabaki garrantzizkoak hartua zen: “Estudioak utzi eta Ingalaterrara joana”, han bizi izan zen hainbat urtez. Eta belaunaldi haren ezaugarri horrek sarri aitortzen dena baino eragin handiagoa izan zuen euskal kulturaren berritze eta berpizkundean, nahiz eta, munduari jira eman ondoren, gure Joxan Artzek euskal kulturaren

**ARTZEREN EDOZEIN  
POEMA LIBURUTARA  
HURBILTZEKO  
GONBIDAPENA EGIN  
NAHI DIZUET**

tradizioan egin izan zuen murgil.

**Eta, hala,** Artze anaiei esker herri-tradizioan galtzear zegoen txalaparta berreskuratzeaz gain, bere mundu-ikuskeraren ardatz bihurtu zen. Baina, gainera, herri-ondareari itzuli zizkion kantu bihurtu ziren hainbat poema, ahaztu egin zaigun arren poesia direla –*Txoria Txori*, *Gogo eta gorputzaren zilbor-hesteak*, *Geure bazterrak*, *Zure askatasunarengatik borrokatzen banaiz*, *Pisako Dorrea*, *Usurbilgo eliza*...–.

Eta Artzeren poesiaren ardatza den bezala argudiaketa, hizketaldi barrenkoienean askatzen eta biltzen den argudiaketa: soinu, erritmo eta arnasarekin hedatuz eta ikuskizunetan irudi bihurtu ondoren antzinako ibaiak bezala iturri berrietan freskagarri gertatuko dena. ■■■